

Etorkizuna aztertzen Bilbon

ESPERANTOA EZTABAIDAGAI. Hainbat aditu esperantoak hezkuntza sisteman izan dezakeen garrantzia aztertzen ari dira egunotan Europako VI. Biltzarrean, Bilboko Euskalduna Jauregian

ANAKOZ AMENABAR - BILBO

Europako Batasuneko hezkuntza sisteman esperantoa ezartzea egokia ote den aztertzeko asmoz, 300 aditu parte hartzen ari dira egunotan Bilboko Euskalduna Jauregian egiten ari diren jardunaldietan.

Jesus Miguel Garcia Bilboko Esperanto taldeko presidentearen esanetan, biltzarren helburu nagusia Europa Batasuneko parlamentuak ikastetxeetan esperantoa hautazko ikasgai legez ezartzea da, «betiere hizkuntza unibertsala den ideia onartuta».

Ildo beretik, Dafydd Fergus Europako Batasuneko idazkari nagusiak iragarri bezala, kongresuak esperantoaren etorkizunari buruz hausnartzeko balio izango du: «Batez ere, joan den apirilean, bozken %57arekin hizkuntza unibertsala Europako Parlamentuan ez erabiltzea erabaki ostean».

Fergusen esanetan, esperantoak parlamentuan eztabaidak arintzea ahalbidetuko luke, «hainbat eurodiputatuk ez baitakite ingelesa, eta itzultzailea behar dute une oro».

Helburua esperantoa «hizkuntza unibertsala» bilakatzea dela azpimarratu du Fergus: «Ez dugu ingelesarekin bukatu nahi, hizkuntzak egun duen erabateko nagusitasunarekin amaitu nahi dugu, besterik ez».

Sean O'Riain Europa Batasuneko Esperantoaren Elkartearen lehendakariak, bere aldetik, Hungariako Gobernuak duela bederatzi urte hartutako eraba-



ESPERANTOZ argitaratutako zenbait liburu. Eskuinean, Jon Miranderen *Haur besoetakoa*-ren itzulpena. RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

kia EBra hedatzea xede dutela gogoratu du: «Ikasleek, bigarren hezkuntzan, esperantoa aukerako hizkuntza dute Hungarian, beste hizkuntzek dituzten baldintza berberetan».

Esperantoa lau haizeetara

Gaur egun, bi milioi pertsonek hitz egiten dute esperantoa munduan, Europa ekialdeko herrialdetan, batik bat. Euskal Herrian ere 200 bat lagunek dakite, Bizkaian nagusiki. 1887an sortu zenetik, gorabehera asko izan ditu. Hizkuntza unibertsala izateko asmoz sortu zuen Varsoviako (Polonia) mediku zen Lazaro Lu-

doviko Zamenhofek, eta arin hedatu zen Alemania, Polonia eta Errusiara batez ere, baina hazkunde moteldu egin zen Lehen eta Bigarren Mundu Guduaren batera.

Euskal Herrian 1905ean Florencio Eskibelak sortu zuen lehendabiziko esperanto elkarte, Sestaon: *Fido, scienco kaj tradicio*. Bilbo, Portugalete, Donostia eta Iruñean ere sortu ziren ondoren. XX. mende hasieran handituz joan zen esperanto hitzunen kopurua: Bilbon 300 inguru ziren eta ehun bat Donostian. Algorta, Tafalla, Santurtzi, Tolosa, Leza eta Beizaman ere baziren hizkuntza zekitenak.

1935ean Teodoro Elizondok euskaratu zuen *Esperanto-Sisilo* gida, hiztegi bat, esperantoaren oinarriko arauak eta ahoskera aholkuak ere biltzen zituena. 50eko hamarkadan gutxiak gutxiak 36ko gerraz geroztik galdutako indarra berreskuratuz joan zen. Bilboko Barenkalen esperanto eskolak martxan jarri ziren eta Gasteizen ere elkarte osatu zen. 90eko hamarkada hasieran, esperanto idatzitako hainbat lan argitaratu ziren, Eusko Esperanto Asocio elkarteak kaleratzen zuen *Kuspe* aldizkaria, besteak beste.

Esperantoa ezagutzen duten euskaldunen artean aipagarriak

dira Bernardo Atxaga eta Aitor Arana idazleak. 1990ean *Esperantoa ikasgai* argitaratu zuen Aranak, euskaldunentzako lehendabiziko gida Elizondoren ostean. Besteak beste, Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* eta Jon Miranderen *Haur besoetakoa* liburuak irakur daitezke esperantoz.

Esperantoak jakin izan du garai berrietara ere moldatzen. Gaur egun esperantoaren nondik norakoak ezagutzeko eta hizkuntza bera ikasteko hainbat ikastaro daude sarean, Interneten. Dakitenek esperantoa ikasteko hiru hilabete inguru aski direla diote.